

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarriak

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**“Espejoko SISEUren eta horren ondoan dauden etxebizitzaren hondakin uren saneamendurako kolektore proiektua”k eragindako ondasun eta eskubideak behin betiko onartzea eta apaitutako proiektuak ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egitea okupazioaren aurreko aktak, okupazio aktak eta balio justua ezartzearen aktak egiteko egintzara**

Foru Gobernu Kontseiluak, 2019ko martxoaren 21ean egindako bilkuran, 200/2019 Erabakia onartu du. Hona hemen horren testua:

“Behin betiko onestea “Espejoko SISEUaren eta haren aldameneko etxebizitzaren hondakin uren saneamendurako hodi biltzailearen proiektuak” eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda eta okupazio beharra adieraztea. Presazko okupazioa adieraztea. Kreditu atxikipena.

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 19ko 339/2018 Erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi zen “Espejoko SISEUaren eta haren aldameneko etxebizitzaren hondakin uren saneamendurako hodi biltzailearen proiektua” eta hasierako onespina eman zitzaion proiektuak eragindako ondasun eta eskubideen zerrendari eta hura jendaurrean jartzeari. Zerrenda jendaurrean izan zen bitartean, ez zen alegazioarik aurkeztu.

Hortaz, behin betiko onartu behar da proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda, eta adierazi, haiek okupatu eta eskuratu beharra, desjabetu eta aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo iraungitzeko.

Desjabetze espedientearen izapideei dagokienez, foru aldundi honek uste du espedientea Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan ezarritako prozeduraz izapidetu behar dela eta, ondorioz, presazko okupazioa adierazi behar da. Horiek horrela, Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak jakinarazi du Arabako Foru Aldundiak, Lurralde Oreakaren Sailaren bitartez, Espejoko SISEUaren eraikina handitzeko obrei ekin diela, eta obren xedea dela eraikina handitzea, egungo hobi septikoa kentzea eta horren ordez hodi biltzailea jartzea, Gaubeako araztegiarekin lotzeko, egungo arazketa sistema ez baita nahikoa. Bestalde, hodi biltzailea jartzeko obra egingo dela baliatuz, Gaubeako HUAra arteko bidean diren beste banakako isurketa puntu batzuk kenduko dira. Era horretan, arazketa sistema eraginkorragoa izango da eta Kontserbazio Bereziko Zonatzat katalogatuta dagoen Omecillo ibaiaren uren kalitatea hobetuko da eta, horrenbestez, konpondu egingo dira horren ahulak diren egungo arazketa sistemen ondorioz egun diren ingurumen arazoa eta osasun publikoko arazoa.

Premiazko jotzeko izapide horretarako, Foru Gobernu Kontseilu honek foru erabakia hartu behar du, honako hauek xedatutakoaren arabera: lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriari buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46 1.b) artikulua eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarria.

Arabako Foru Aldundiak eskumena du proiektuaren xede den herrilana proiektatu eta gauzatzeko, honako hauek xedatutakoari jarraituz: toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31.2 a) eta 36. artikulua; toki araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. artikulua, eta Autonomia Erkidegoko erakundearen eta lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanari buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7 a.10 artikulua.

Eskumen horiek baliatzeko, Foru Aldundiak aukeran du desjabetu beharreko ondasun eta eskubideak desjabetzea, halaxe xedatzen baitu Nahitaezko Desjabetzearen Legeak 2.1 artikuluan. Era berean, adierazi behar da erakunde honen barne eremuan Foru Gobernu hau dela organo eskuduna desjabetzeak eragindako ondasunen eta eskubideen behin betiko zerrenda eta horiek okupatu beharra onesteko, hala xedatzen baitute Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.26) artikuluan eta Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunari, herritarren parte hartzeari eta gobernu onari buruzko otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak laugarren xedapen gehigarrian.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak emandako txostena aztertu da, non behar den aurrekontu kreditua badagoela jaso den.

Horregatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko eta Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuen proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hona hemen

#### ERABAKIA

Lehen. Onestea proiektu horrek eragindako ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda, honekin batera doan eranskinean jasotzen dena, eta haiek okupatu eta eskuratu beharra adieraztea, desjabetzeko, aldi batez okupatzeko, eta zortasunak ezarri, aldatu edo azkentzeko.

Bigarrena. Adieraztea honi erantsitako zerrendan agertzen diren ondasunak eta eskubideak presaz okupatu behar direla, eta, horregatik, desjabetze espediente Nahitaezko Desjabetzearen Legearen 52. artikuluan xedatutako presazko prozeduraren bidez izapidetzea.

Hirugarrena. 5.934,19 euro esleitzea, Arabako Foru Aldundiaren 2019rako luzatutako 2018rako aurrekontuaren "Desjabetze hidraulikoak" partidaren kontura (50106.5300.6000004 partida; xedapen erreferentzia: 105-1007/000.19.5.19.), eragindako ondasunen eta eskubideen balio justua dela-eta ordaindu beharreko kopuruei aurre egiteko.

Laugarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak I. eranskinean zerrendatutako finkei dagokien balio justua ordain dezala aipatutako lerroaren eta xedapen erreferentziaren kontura. Zenbateko hori Desjabetze Atalaren buruaren proposamen txostena aurkeztu eta gero ordainduko da eta Nahitaezko Desjabetzearen Legeak ezarritako epeen barruan.

Bosgarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea, proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren azalera handitzeak eta aldaketak egin ahal izan ditzan, kontuan izanda zein muga ezartzen duen 21/2017 Foru Arauaren 16.1.a) artikulua (21/2017 Foru Araua, abenduaren 22koa, Arabako Lurralde Historikoen 2018rako aurrekontua gauzatzeko)."

Horren berri ematen da interesdunak jakinaren gainean jartzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, eta jakinarazten da egintza honek administrazio bideari amaiera ematen diola, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango dela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, nahi izanez gero, lehenago berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio egintza hau agindu duen erakunde berari. Horretarako, hilabete izango da aurkatutako egintza argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Hala eginez gero, ezingo da aurkeztu administrazioarekiko auzi errekurtsorik, harik eta aurkeztutako berraztertze errekurtsioaz ebazpen espresa eman edo ustezko ezespene gertatu arte (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikulua).

Halaber, dei egiten zaie honi erantsitako agirian ageri diren titularrei, Valdegovíako (Villanueva de Valdegovía) Udaletxeko lokaletan ager daitezen, bertan jasotako egunean eta orduan, finkak okupatu ahal izateko, okupazioaren aurreko gordailua eta azkar okupatzeagatiko kalte-ordainaren kopuruak aurretik eskeiniz.

Kontzeptu horien zenbatekoa jaso nahi izanez gero, zeina behin betiko prezio justuaren kontura den, ondoko hauek aurkeztu beharko dira: eskubidea egiaztatzen duten tituluak, nortasun agiri nazionala eta ahalorde askietsia, legezko ordezkariak agertzen badira akten ekitaldira.

Ez badira onartu nahi eskainitako zenbatekoak edo ezin bada modu frogagarrian egiaztatu desjabetutako ondasunaren titulartasuna edo zein nortasunekin agertzen den, diru kopuru horiek Arabako Foru Aldundiko gordailu kutxan kontsignatuko dira, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legearen Arautegiak 58-1. artikuluan jasotakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 22a

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren zuzendaria*  
**MARÍA ÁNGELES GUTIÉRREZ ONDARZA**

ESPELOKO SISEUREN ETA HORREN ONDOAN DAUDEN ETXEBIZITZEN HONDAKIN LUREN SANEAMENDURAKO KOLEKTORE PROIEKTUA  
 PROYECTO DE COLECTOR DE SANEAMIENTO DE AGUAS RESIDUALES DE LICEIS Y VIVIENDAS COLINDANTES EN ESPEJO

Esp./Expte. 2019/42

| FINKAREN ZK. | TITULARAREN IZENA              | KATASTROKO DATUAK |         | UDALERIA            | ERAGINDAKO ONDASUNA | APROBETAMENDUA  | ERAGINTZAKO AZALERA m <sup>2</sup> |                | EGUNA    | ORDUA |
|--------------|--------------------------------|-------------------|---------|---------------------|---------------------|---|------------------------------------|----------------|----------|-------|
|              |                                | POLIGONO          | PARZELA |                     |                     |   | BEHIN-BETIKOA                      | ALDI BATERAKOA |          |       |
| 1/000        | JOSE LUIS EGUILAZ SANTIAGO     | 13                | 1052    | TERMINO MUNICIPAL   | BIEN AFECTADO       | AFROVECHAMIENTO   | DEFINITIVA                         | TEMPORAL       | 15/04/19 | 1030  |
| 2/000        | BLAS GARNICA PEREZ DEL PALOMAR | 13                | 345     | GAUREA / VALDEGOVIA |                     | LEHORREKO LABORANTZA LURRA /<br>TIERRA DE LABOR SECANO<br>ETZEA / BIVAL | 16                                 | 4.319<br>192   | 15/04/19 | 1200  |